

BAZTANGO EMAZTEKI* ETA GIZONEN* BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

2022ko otsaila



Laguntzailea:     

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. MARKO ARAUTZAILEA.....	4
3. METODOLOGIA ETA EMANDAKO URRATSAK.....	8
4. PLANAREN EBALUAZIOA.....	10
4.1. PLANAREN DESKRIBAPENA	10
4.2. PLANAREN EGOKITASUNA	12
4.3. PLANAREN BETETZE-MAILA.....	13
4.4. BALORAZIO KUALITATIBOA	17
4.5. ONDORIOAK ETA IKASPENAK.....	22
5. BAZTANGO EGUNGO EGOERA.....	23
5.1 BAZTANGO EMAZTEKI ETA GIZONEN EGOERA DATUETAN.....	23
5.2 BAZTANGO EMAZTEKI ETA GIZONEN EGOERA INFORMAZIO KUALITATIBOA.....	31
6. ONDORIOAK.....	35
7. ERABILITAKO MATERIALA	36

1. SARRERA

Ez gaude abiapuntuari. Bidea gora-beheratsua izanagatik, bada hamarkada bat, bederen, emazteki* eta gizonen*¹ berdintasunerako politikak lantzen direla Baztango Udalean.

2011n izan zuen Baztanek lehenbiziko aldiz emazteki alkate bat: 2012an lehenbiziko Berdintasun teknikaria; 2014an egin zen emazteki eta gizonen berdintasunaren inguruko diagnostiko sakona; 2015 eta 2018 bitarteko iraupena izan du Berdintasunerako I. Planak; 2018tik 2021 bizkitartean bi Berdintasun teknikari pasatu dira, eta hilabete guti batzuetan egon da postua betea, hortaz, teknikaririk gabe egon da Baztango bailara denbora luzean; 2021eko maiatzaz geroztik, Baztanek berriz du Berdintasun teknikaria, eta horri lotua heldu da esku artean duzun lana.

2021eko buruiletik 2022ko otsaila bizkitartean, Baztango emazteki eta gizonen I. Berdintasun Plana ebaluatu dugu Elhuyarretik, udalak hala eskatua.

Prozesu hau ez dugu bakarrik egin. Ordezkarik politikoei, udaleko hainbat teknikaririk, herriko mugimendu feministak, bai eta hainbat emazteki kolektibok hartu dute parte hausnarketan. Aipamen berezia merezi dute, bizi duten egoera zailengatik nekazal guneeetako emaztekiei eta emazteki migratuei. Horrez gain, abenduaren 18an egindako herri batzarrean baztandarrek egindako hausnarketak txertatu dira txostenean. Esker mila guziori prozesuan parte hartzeagatik.

Esku artean duzun txostenak aipatutako prozesuaren emaitzak biltzen ditu eta sei ataletan dago banatua.

- 1- Sarrera
- 2- Marko arautzailea
- 3- Metodologia eta emandako urratsak
- 4- Planaren ebaluazioa
- 5- Baztango egungo egoera
- 6- Ondorioak

¹ Testu honetan, emazteki* eta gizonen* buruz zentzu zabalean solastatuko gara, hau da, emazteki eta gizon gisa hautemateko orduan dagoen aniztasuna kontuan hartuta eta bakoitzak emazteki eta gizon izateko esperientzia bizi duen moduan, eta ziurtzat joz, halaber, binarismo horrek ez duela gure udalerriko eta munduko errealitate osoa ordezkatzen.

2. MARKO ARAUTZAILEA

Emaztekien kontrako diskriminazioa eta sexuen arteko berdintasunari buruzko mundu mailako lehen **testu arautzailea 1979an sortu zen** Nazio Batuen Erakundearen eskutik. CEDAW bezala ezaguna egin da, euskararat ekarria; “*Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa*”.

Esplizituki azaldu zen bereizkeria mota “guziak” hitza. “Guziak” hitzak erreferentzia egiten die diskriminazio zuzenei, bai eta zeharkako diskriminazioei ere; hau da, esplizituki emaztekien kontrako neurria izan gabe, arau eta praktika batek bere ondorioetan sexu bereizkeria ekartzen duenari.

Gaur egun, diskriminazio mota guztiak debekatzen dituzte bai Europako zuzentarauek, bai eta Estatukoek nahiz Nafarroako Foru Arauek ere.

Bereizkeria mota horiei aurre egiteko “**ekintza positiboan**” beharra jaso zuten arautegi haiek. Ekintza positiboa deitu zioten **espreski emaztekiei, hau da, desabantaila egoeran dauden kolektiboari zuzendutako neurri bereziak** ezartzeari.

Araugintzaren aldetik, **bigarren salto kualitatiboa 1995ean eman zuen Nazio Batuen Erakundeak** Beijingo “Emakumeari buruzko Konferentzian”. Bertan, sexuen arteko berdintasuna lortzeko, jarduketa publiko guzietan, eremu eta etapa guzietan, kontzienteki berdintasuna bulkatu behar zela ezarri zen: “**Genero-zeharkakotasunez**” lan egin beharra, edo *gender-mainstreaming* estrategia erabili beharra arautu zen. Estrategia hau bere egin zuen Europak 1998an, eta jarraian Estatuko eta Nafarroako Gobernuak ere hala jaso zuten.

Akitzeko, ezin aipatu gabe utzi “**2030 Garapen Jasangarria Helburu**” deritzon NBEren dokumentua, 2015. urtean adostua. Bertan ezartzen da gizateriaren helburu nagusien artean **sexuen arteko berdintasuna eta emazteki eta neskatikoen ahalduntzea**. Emaztekien ahalduntzea, mundu mailako estrategia gisa, ezinbertzekoa baita desabantaila egoerei aurre egin ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak 2019ko apirilaren 4an onartu zuen **17/2019 Foru Araua, emazteki eta gizonen berdintasunari buruzkoa**. Bertan, emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzeko betebeharrak eta bide-orria ezarri zituen: bai Nafarroako administrazio publiko guziraiko, bai eta kasu batzuetan, pertsona fisiko eta juridikoendako ere.

Honela, **Baztango udalerako aipagarrienak diren hiru artikulua** azpimarratu nahi izan ditugu ondoko lerroetan: 12. artikulua, Nafarroako toki entitateek, **tartean udalek, dituzten betebeharrak** ezartzen dituen; 28. artikulua, **landa eremuko emaztekien ahalduntzearen** ingurukoa; eta hondarra, hirugarren xedapenean jasotakoa, toki entitateei **Berdintasunerako Plan estrategiko bat izatearen betebeharra** jasotzen duena. Segidan jaso ditugu aipatutako arauak taula batean:

17/2019 FORU ARAUA, apirilaren 4koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa

12. artikulua. Nafarroako toki entitateak.

1. Toki entitateek beren eskumenak betetzean txertatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa, eta, horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean arituko dira.

2. Zeini bere lurralde-eremuan eta ordenamendu juridikoak emandako eskumenak betez, toki entitateei eginkizun hauek dagozkien berdintasun arloko politiken gaian:

- a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko helburuak eta jarraibideak ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta
- b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.
- c) Udal jardunaren eremu guztietan desperekotasuna eta diskriminazioak desagerrarazteko politikak gauzatzea.
- d) Emakumeen gabeziak eta beharrak aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.
- e) Emakumeei arreta, informazioa eta orientabideak ematea eskura dituzten programa eta baliabideei buruz, beraien eskubideak egiaz erabil ditzaten laguntzeko.
- f) Herritarrak sentsibilizatzea, balio aldaketa sustatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko.
- g) Emakumeen autonomia pertsonala eta ekonomikoa sustatzea, emakumeen enplegua eta haien ahalduz pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatuz.
- h) Emakumeen presentzia sustatzea parte hartzeko organoetan eta erabakiak hartzeko guneetan.
- i) Emakumeen elkarteei eta talde feministei laguntzea, eta sustatzea parte har dezaten berdintasunaren eta genero-zeharkakotasunaren politikak diseinatzen, egiten, garatzen eta ebaluatzen.
- j) Estatistika eguneratuak izatea, toki entitateen jardun eremuetan emakumeek eta gizonen dituzten egoera desberdinen berri izateko bide ematen dutenak.
- k) Ahaleginak egiten dira laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko tokiko baliabideak eta zerbitzuak ezarri eta egokitzeko.
- l) Bermatzea, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, teknikarien eta politikarien berariazko prestakuntza dagozkien eginkizunak bete ditzaten foru lege honek ezartzen duenari dagokionez.

3. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenak betez eta toki autonomiaren printzipio konstituzionala erabat errespetatuz, toki entitateei sostengua eta babesa emanen die, eta sustatuko du berdintasun teknikariak kontrata ditzaten, gutxienez ere Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak definitzen dituen hamabi eskualdeetan, lurralde osoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko xedeaz.

4. Nafarroako Gobernuak osatu behar du, kooperazioaren printzipioari jarraikiz, toki entitateen nahikotasun finantzarioa foru lege honek esleitzen dizkien eginkizunei dagokienez, ezertan galarazi gabe toki entitateek beren aurrekontuetan beharrezkoa den dirua jartzea eginkizun horiek

finantzatzeko.

5. Toki entitateek genero-ikuspegia txertatuko dute beraien politika, programa eta ekintza administratibo guztietan, foru lege honetan ezartzen denari dagokionez eginkizunak garatu eta betetzeko langileak jartzea sustatuko dute, eta berdintasun ordenantzak egiten ahalko dituzte, apartatu honetan ezarritakoa jasotzeko.

6. Toki entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planak ezartzen ahalko dituzte beraien lurralde-eremuan, eta, edozein kasutan, neurriak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko oztopoak kentzen joateko.

7. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, udal mailako eta udalez gaindiko toki entitateekiko koordinazio egitura bat ezarriko du foru lege honetan ezarritakoa betetzeko, zeina erregelamendu bidez garatuko baita.

8. Foru lege honetan ezarritako elkarlan, koordinazio eta lankidetzaren printzipio orokorra aplikatuz, toki entitateak koordinatuta arituko dira foru legean ezarritako eginkizunak betetzen elkarri laguntzeko

28. artikulua. Landa inguruneko emakumeak ahalduntzea.

1. Nafarroako Gobernuak genero-ikuspegia txertatuko du landa garapenerako jardueretan, eta bermatuko du esku-hartze horiek jaso ditzatela emakumeen beharrak; bidera dezatela emakumeek ekitatez parte hartu ahal izatea, osotasunez, landa garapenerako prozesuetan, eta ekarpena egin dezatela emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasun erreala lortzeko.

2. Nafarroako Foru Administrazioak zaindu beharko du emakumeek erabakiak hartzea despopulazioaren aurka borrokatzeko neurri gisa, landa-ingurunean duten presentzia eskasa eta eremu horretako pobretzea direla eta; zehazki, honako hau egin behar du:

a) Indartu behar du enplegua sortzen duten jardueren garapena, eta landa-inguruneko emakumeak lan-eremuan sartzea errazten duten eta ingurune horren populazio galtzea saihesten laguntzen duten jardueren garapena.

b) Landa-inguruneko emakumeek prestakuntza hartzeko modua izan dezaten erraztea.

c) Generoko eta lurraldeko arrakala digitala deuseztatzen laguntzea, landa-inguruneko emakumeek informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea izatea errazten eta bultzatzen duten tresnekin.

d) Zaintzea landa-inguruneko emakumeen parte-hartze sozial osoa lor dadin, eta enpresen eta elkarteen zuzendaritza-organoetan osoko parte-hartzea izan dezaten.

e) Emakumeek eta gizonen nekazaritza-ustategietan titularkideak izan daitezten sustatzea.

f) Sustatzea emakumeek eta gizonen ordezkaritza parekidea izan dezatela nekazaritza erakundeen erabakitze-organoetan.

g) Sentsibilizazio ekintzak sustatzea, landa-eremuko emakumeen lana ikusgai egiteko aukera ematen dutenak. h) Behar diren neurriak ezartzea landa-eremuko desberdintasunak lantzeko.

i) Emakumeen ekarpenak bultzatzea, klima-aldaketaren arloan.

3. Gainera, nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-politiketan eta nekazaritzako elikagaien arlokoetan honako hauek egin beharko dira:

a) Emakumeek eremu horietan dituzten jakintza tradizionalen transmisioa sustatzea, eta aitortzea eta ikusgarri egitea familia-ustategien mantentzerako egiten duen ekarpena.

b) Hurbiltasuneko sareak eta gizarte zerbitzuen sareak sustatzea, haurrei, zaharrei eta mendetasuna duten pertsonen laguntzeko, landa-inguruneko emakumeen eta gizonen laneko eta familiako bizitza eta

BAZTANGO EMAZTEKI* ETA GIZONEN* BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

bizitza pertsonala bateragarri egiteko.

c) Emakume ekintzaileen enpresa-ekimenak eta emakumeek sustatutako nekazaritza- edo abeltzaintza-garapeneko jarduerak bultzatzea.

d) Erraztasunak ematea emakume gazteak nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza sektoreetan eta nekazaritzako elikagaien sektorean sar daitezen.

Hirugarren xedapen gehigarria: 2. Puntua:

...

2. Foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoa onartzen denetik urtebeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sektore publiko instituzionala osatzen duten erakunde eta entitateek beraien berdintasun planak onetsi beharko dituzte.

3. METODOLOGIA ETA EMANDAKO URRATSAK

Prozesua metodologikoki bideratzeko IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen den metodologian oinarritu gara. **Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana** bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, **estrategia komunak erakitzea errealitatea aldatzeko**.

Horregatik, **inportantzia eman** diogu, batetik, **talde hausnarketak** sustatzeari, eta bertetik, etorkizunari begira **erronkak elkarrekin identifikatzeari**.

Bidea garrantzitsua delakoz, ebaluatzen genuen bizkitartean, emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzeko **sareak** sortu, **prestakuntza** bulkatu eta **ahalduntzean** laguntzen ahalegindu gara.

Prozesuan zehar parte hartu duten eragileak identifikatzeko, **Baztango errealitate administratiboari erantzuten** saiatu gara, prozesuaren diseinuan **alkate juratuekin lan bilera bat** aurreikusiz.

Laburbilduz, honela egin dugu lan:

Ordezkarri politikoekin kontrastatu dugu ibilbide osoa.

Ordezkarri politikoekin
(aurkezpena)

Udal teknikariekin
(2 saio)

Emakumeen kolektibo jakinekin
(3 saio)

Udalerriko 15 **alkate juratuekin lan-saio bat** (*bertan behera*)

Mugimendu feminista, eragile eta herritarrekin saio ireki bat

Arduradun politiko eta teknikoekin elkarrizketak

1. Udal teknikariekin, udal barneko berdintasun-politiken garapena aztertu dugu eta aitzinerat begirako aukerak eta erronkak identifikatu ditugu.

2. Emazteki migratuekin, landa eremuekin eta sektoreetan antolatuta dauden emaztekiekin gaur egungo Baztango emaztekien erronkak identifikatu ditugu.

3. Alkate juratuekin lan-saio bat egiten saiatu gara, nahiz eta ez den atera.


4. Herritarrekin, mugimendu feministarekin eta ordezkari politikoekin kontrastatu dugu emaitza.

5. Egindako lana abiatzeko, eta osatzeko, elkarrizketa zehatzak egin

dizkiegu Baztanen berdintasun arloan aitzinetik lanean aritu direnei.

BAZTANGO EMAZTEKI* ETA GIZONEN* BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

Prozesuak hiru fase izan ditu, **lehenbizikoa**, proposamena eraikitzea, ahalik eta kontraste gehien eginaz. **Bigarren fasea** hausnarketa eta ebaluazio fasea izan da. **Hondar fasean**, emaitzak aurkeztu eta kontrastatu ditugu aipatutako eragileekin.



Sei hilabeteko prozesua izan da, 2021eko buruiletik 2022ko otsaila bizkitartean, goitian dagoen **eskeman laburtzen den moduan**.

*Alkate juratuekin egin behar zen batzarra ezin izan zen egin asistentzia faltagatik. Hala ere, herritarrei zuzendutako tailerrera gonbitea egin zaie.

4. PLANAREN EBALUAZIOA

4.1. PLANAREN DESKRIBAPENA

Baztango emazteki eta gizonen berdintasunerako **I. Plana 2014ko abenduaren 18an onartu zen** osoko bilkuran. Plan hau 2013an abiatutako partaidetza baten bidez osatu zen, eta 2015-2018 bitarteko iraupena izan du.

Garai hartako planek egiten zuten moduan, hau ere **4 ardatz** edo gaien inguruan zegoen antolatua. Hauek ziren ardatzak:

1. *Mainstreaming* edo zeharkakotasuna
2. Emaztekien ahalduntzea eta parte hartzea
3. Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna
4. Emaztekien kontrako indarkeria.

Lau ardatzak udal barnean lantzeko, **6 lan eremu edo arlotan** banatu zen plana.

1. Tokiko administrazioa
2. Kultura, aisia eta kirola
3. Hezkuntza eta Gazteria
4. Tokiko garapena eta enplegua
5. Osasuna eta Gizarte zerbitzuak
6. Lurralde antolamendua



Aipatutako sei arlo hauetan, **4 ardatz** horien gainean lan egiteko, planak **47 helburu** zituen jasota, guzira **185 ekintza**.

Bertzetik, dokumentuan bertze hainbat kontu interesgarri biltzen ziren, erraterako, plana garatzeko **lanerako egiturak, komunikazio plana, emaztekiek parte hartzeko espazioak**, baita planaren jarraipena eta **ebaluzioa egiteko metodologia** ere.

Akitzeko, planaren akaberan, **Plana garatzeko baliabideak** aipatzen ziren, berdintasun teknikaria eta plana garatzeko aitzinkontua kasu. Dokumentua glosario edo hiztegitxo batekin akitzen zen.

BAZTANGO EMAZTEKI* ETA GIZONEN* BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

Ekintzen inguruan, beheiko taulan ikusten ahal da zehatzago nola zeuden banatua.

ARLOAK	Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna	Emaztekie ahalduntzea eta parte hartzea	Emaztekie n kontrako indarkeria	Mainstreaming eta Zeharkakotasuna	Total orokorra
Hezkuntza eta gaztedia	4	2	8	21	35
Kultura, Aisialdia eta Kirola	2	15	8	10	35
Lurraldea eta antolamendua	3	2	2	5	12
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	4	7	6	13	30
Tokiko Administrazioa	5	8	5	32	50
Tokiko garapena eta enplegua	5	10	0	8	23
Total orokorra	23	44	29	89	185

Planaren kasik erdia zeharlerrotasunaren inguruko ekintzak ziren: 185etik 89. Arloei dagokienez, Tokiko administrazioak zituen jasota ekintza gehienak: 185tik 50 ekintza.

Planaren jarraipena egiteko urteroko ekintza plana eta urteroko jarraipena egitea ezartzen zuen dokumentuak. **Jarraipenerako 182 adierazle** jasotzen ziren guzira, helburuen betetze mailari eta ekintzei lotuta, 6 arlotan banatuta.

Heldu den atalean ekintzen betetze maila aztertu dugu, udal teknikariengandik jasotako informazioaren arabera.

4.2 PLANAREN EGOKITASUNA

Dokumentazio fasean egindako elkarrizketetan eta hausnarketarako sortutako taldeetan Baztango emazteki eta gizonen berdintasunerako **I. Plana egokia zenaren iritzia nabarmendu da.**

Izan ere, **aitzinetik lan handia izan zuen** lehenbiziko plan honek, diagnostikoak, inkestak eta eztabaida-taldeak, erraterako. Berdintasun-teknikaria lortzeko egindako lana goraiipatzen zuen elkarrizketatu batek: *“Teknikari batendako diru-laguntza geratzen zela jakin genuen, eta Iruñera joan ginen NABlra diru-laguntza eskatzera, pare bat herriren artean zegoen lehia, baina, azkenean, Baztanendako kontratatua izatea lortu genuen”*.

Udaleko arlo guziaz inplikatu nahi izan ziren, eta plana egiteaz gain, planaren **garapenerako eta jarraipenerako bitartekoak** aurreikusi zituen dokumentuak. **Osoko bilkura batean onartzeak** adostasun politiko handia erakusten zuen, dokumentuaren berrespen argia ikusi zen.

Baina, egia da, guziaz bildu nahi izatean ekintza aunitz sortu zirela, eta denak lantzea ez zela egingarria izan. **185 ekintza aunitz dira**, eta **182 adierazle izateak**, planaren jarraipena egiteko **lan handia eskatzen zuen**.

Bertzetik, ekintza aunitzen **ardura “Berdintasun zerbitzuarena”** edo “berdintasuna” eta bertze zerbitzu batena izan da, partekatua. Horrek erran nahi du udaleko arlo aunitzek ez dutela beren arduratako hartu ekintza horiek garatzea. Horri gehitu behar zaio Berdintasun zerbitzuan inor ez dela egon.

Aipatzeko bertze kontu bat ere bada, Plana ez dela arras ezaguna izan. Plana diseinatzerakoan komunikazio plana aurreikusia bazen ere, ez da nahikoa zabaldu eta ezezaguna izan da bai udal barnean nahiz kanpoan. Egia da, udal barneko ezezagutza hori langileen ezegonkortasunarekin lotzen ahal dela.

2014an sortu zen dokumentua izan zen Baztango I. Berdintasun Plana, eta bere egokitasunaren bertze ezaugarrietako bat zen planaren garapenerako aurreikusten zituen 4 koordinaziorako organoak. Berdintasun zerbitzu barneko koordinazio tekniko-politiko, udal barneko koordinazio politiko-tekniko, Baztango emaztekiekin koordinazioa eta hezkuntza gaien inguruko ikastetxe eta Berdintasun zerbitzuaren arteko koordinazioa. *“Planean jasoa bazegoen ere, benetan iraunkorra zen koordinazioa Berdintasun Batzordea zen, elkarrekin eta emaztekiekin solastatzeko espazioa”*, (2.elkarrizketa).

4.3. PLANAREN BETETZE-MAILA

Ekintzen betetze-maila bi maneretatart jaso dugu. Batetik, arloka izandako betetze-maila, eta bertzetik, ardatzen arabera izan den betetze-maila. Informazioa udal langileen bidez bildu dugu.


Arlokako betetze-maila:

Behetian ikusten den moduan, betetze maila ez da arras altua, soilik ekintzen % 27a burutu da, 51 ekintza guzira. Hala ere, martxan paratutakoak edo berformulatuta, bertze era batera egin direnak % 12 gehiago dira, hau da, 22 gehiago.

EKINTZAK ARLOKA BETETZE MAILAREN ARABERA

ARLOAK	Eginda	Erdizka	Ez da egin	Ez dakigu	DENETAR A
Hezkuntza eta gaztedia	5	3	23	4	35
Kultura, Aisialdia eta Kirola	12	1	2	20	35
Lurraldea eta antolamendua	2	1	8	1	12
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	16	0	9	5	30
Tokiko Administrazioa	10	15	23	2	50
Tokiko garapena eta enplegua	6	2	1	14	23
Total orokorra	51	22	66	46	185


Kezkagarriena, ordea, zenbait arlotan dagoen informazio falta da, ekintzen laurdenaren kontu ez baitugu inolako informaziorik (% 25 ez dakigu).



ARDATZEI DAGOKIONEZ:


MAINSTREAMING

■ Eginda ■ Erdizka ■ Ez da egin ■ Ez dakigu




EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

■ Eginda ■ Erdizka ■ Ez da egin ■ Ez dakigu




BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIZUNA

■ Eginda ■ Erdizka ■ Ez da egin ■ Ez dakigu



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

■ Eginda ■ Erdizka ■ Ez da egin ■ Ez dakigu




Proportzioan emaztekien kontrako indarkeria lantzen zuten ekintzak garatu dira batez ere. Gutien burututakoak, ordea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasunari lotutako ekintzak dira, % 17. Gainera, egin ez direnak ia erdia dira, proportzioan gutien garatu den ardatza, hortaz.

Hala ere, zeharlerrotasunari edo genero ikuspegia administrazioaren jardueran txertatzeari lotutako ekintzak dira martxan paratu diren gehienak, (% 27 eginak, % 20 erdizka). Bide nabarmena egin da beraz. Emaztekien ahalduntzeari lotutako ekintzen inguruko informazioa da batez ere falta dena, baina, ia ekintzen herena bururaino eraman direla jaso dugu.

ARLOZ ARLO:

OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK


EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU



Plana **gehien garatu duen arloa Gizarte Zerbitzuak** izan da. Bertako langileak planaren hasmentatik daude udalean, eta gaia bera arras lotua dago larritasun sozialei eta aukera berdintasunak eskaintzeari. Ekintzen erdia baino gehiago garatu dituzte (% 53). Gainerako arloetan ekintzak ez dira guziz garatu. Aipatu zuten **planean jasota ez dauden hainbat kontu egin direla** hondar urteotan: Emazteki migratuekin bilerak, zaintzaile taldeak, emaztekien kontrako indarkeria kasuen kudeaketa, diagnostikoak²....

KULTURA, AISIALDIA ETA KIROLA


EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU



Kultura, aisialdia eta kirolari dagokionez, eguneroko jardueran genero ikuspegia txertatzeko ekintzak eta zeharlerrotasunez lan egiteari buruzkoak aitzinera eraman direla erraten ahal da. Zehazki berdintasuna helburu zuten ekintza zehatzekin egon da zailtasun gehiago. Arrazoietakoa bat baliabide falta izaten ahal dela adierazi da. Denbora eta aitzinkontu falta.

TOKIKO GARAPENA ETA ENPLEGUA

EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU




Tokiko garapena eta enpleguaren alorrean teknikari berria dago 2021 urteaz geroztik. Lanean denbora guti daramanez, ezagutza handirik ez dago jasota emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzen inguruan. Emaztekien ekintzailtza sustatzeko sariak kudeatu izan dira, bertzeak bertze. Baina,

² Baztango Udalerriaren emaztekien egoeraren diagnostia (2005). Egilea: Ernesto Pérez Esain. Kolaborazioa: Sara Soto Ahechu. Elizondo.

Nafarroako Gobernutik etorritako programei lotutako ekintzak izan direla dirudi.

TOKIKO ADMINISTRAZIOA


EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU



Tokiko administrazioaren alorrean zeuden bilduak ekintza gehienak. 50 ekintza guzira. Bertan Berdintasun Zerbitzuaren ardura beharko luketen ekintza aunitz aurreikusten ziren. Berdintasun Zerbitzua denbora luzez hutsik egoteak zaildu du ekintza horiek aitzinera eramatea. Zeharlerrotasunari lotutakoak izan dira gehien garatu diren ekintzak. Garatu ez den bertze alor bat, udal barneko langileei begira berdintasuna sustatzeko neurriak izan dira.

LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA


EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU



Lurralde antolamenduak zituen ekintza gutien. 12 zehatz erranda. Hauetariko gehienak ez dira egin. Ekintzak ez garatzeko zergatien artean **prestakuntza eta koordinazioaren falta** nabarmendu zituzten. Izan ere, bi ekintza egin dira bakarrik: *Espazio publikoa egokitzea erabilerraztasuna bulkatzeko*, eta *Hirigintza teknikari zein politikariei formazio saioak egitea*.

HEZKUNTZA ETA GAZTEDIA

EGINDA ERDIZKA EZ DA EGIN EZ DAKIGU




Alor guzien artean gutien garatu dena Hezkuntza eta Gazteriaren alorra da, ez baitago Gazteriaren ardura duen arlo zuzenik. Ekintzen % 14 garatu da bakarrik. 5 ekintza guzira. Egin ez diren ekintzak % 66 izan dira. 4 bakarrik izan dira identifikatu ez dituzten ekintzak. **Gehien garatu diren ekintzak neskatiko gazteen ahalduntzeari buruzkoak izan dira.** Hutsunea, aldiz, ikastetxeekin egin beharreko koordinazio lanean nabarmendu da.

4.4 BALORAZIO KUALITATIBOA

Nola bete dira, ordea, ekintzak? Galdera horri erantzun diogu udal-langileekin egindako bi lan-saioetan. Lehen lan-saioan batez ere arlo sozialetako udal-langileek hartu dute parte. Bigarren lan-saioan, aldiz, izaera teknikoagoa duten langileek.

Arlo kualitatibo batetik, zeharlerrotasunen inguruko ekintzei buruz aritu gara. 8 lan-ildo izan ditugu hizpide.



Hona hemen ondorio nagusiak:

DATU BILKETA ETA AZTERKETA

Emazteki eta gizonen egoeraren inguruko azterketak sistematikoki egiteko tresnarik ez dago udalean. Halako azterketetan konparaketak egin ahal izateko **ezinbertzekoa da emazteki eta gizonen datuak bereizi ahal izatea**. Gainera, legez ezarria dago datuak sexuaren arabera desagregatuta jasotzeko betebeharra Nafarroako Foru Arauan (17/2019, *Emakume eta gizonen berdintasunerako Foru Araua*, 19.artikulua).

Gai sozialei lotua, datuak bereiziak jasotzeko joera dago aspalditik, bai eta noizean behin, diagnostikoak egitea ere. Hauek egitean sexu aldagaia jasotzen da datu bilketetan. Gainerakoan, udalaz gaindiko datu bilketetan jasotzen da sexu-aldagaia; erroldan, erraterako.

Legezko betebeharra izateaz gain, Baztango bereizkeriak identifikatzeko ezinbertzeko tresnak dira. Horregatik, aitzinera begira, lehentasunez landu beharreko gaitzat hartu da honakoa.

KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ETA BARNERATZAILEA

Udal mailan ez dago komunikazioa era bateratuan lantzeko ohiturarik. Adibidez, udal arlo bakoitzak bere web atala kontrolatzen du, baina ez berteena. Irudi eta hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko ikastaroa egin zen duela urte batzuk, eta eragina izan zuela nabarmendu da taldeetan, nahiz eta langileen artean errelebo handia egon.

Gero eta gehiago hartu ohi da kontuan hizkuntza eta irudi ez estereotipatuak erabiltzea udaletik, baina nahiko hautu indibiduala dela aipatu da.

Kontuan hartuta udalean egiteko dauden zeregin guztiak berdintasunaren ikuspegitik, eta jakinda ere beti dagoela hobetzeko margena, lan alor hau ez da lehentasunezkatiko jo udal langileen artean.

Hala ere, komunikazio ez sexista eta barneratzailea sustatzeko gida gisako bat proposatu da, langileen artean hedatzeko.

BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK

Kontratazio publikoetarako lege berria sartu zenetik gero eta ohikoagoa da Baztango udalean kontratazioetan klausula sozialak ezartzea. Emazteki eta gizonen berdintasuna helburu duten klausulak txertatzeko ohiturarik ez dago oro har.

Gizarte zerbitzuetatik egiten diren kontratazio eta dirulaguntzetan berdintasun klausulak eta irizpideak sartu ohi dira, batez ere emaztekien behar sozialei lotuak; indarkeria jasan duten emaztekiei lehentasuna emanaz, adibidez.

Kirol zerbitzuetatik emaztekien parte hartzea handitzeko klausulak ezarri ohi dira dirulaguntzetan.

Udaltzaingoan hautaketa prozesuan egiten den idatzizko azterketan berdintasunaren inguruko gaitegia sartu da. Horrela bada, udal langileen kontratazioei begira, 2021eko deialdian legeak ezartzen duen gaitegietan berdintasun gaiak sartzeko betebeharra bete da (7/2019 Foru Araua, 20.4 artikulua).

Alor honetako problemarik nabarmenena, ohikoa den gisan, **klausulei jarraipena egiteko sistema falta da**. Klausulen segimendua egiteaz gain, interesgarria litzateke klausula hauen eragina neurtu ahal izatea.

UDALEKO OHIKO JARDUERAK

Udal langileen gehiengo emaztekoa dela azpimarratu dute taldeetan, eta horrek

berdintasunarekiko sentsibilizazioa ekartzen ahal duela. Hala ere, berdintasuna kontuan hartzea norberaren apustua izan dela nabarmendu da. Ez dago ezarria genero ikuspegia nola txertatu bakoitzaren eguneroko jardueran. Prestakuntza faltaz solastatu da hainbat arloetan.

Bertze alorretan **bide-orri edo mandatu zehatzagoen faltaz** solastatu da.

Batez ere gai sozialetan hartzen da kontuan berdintasuna sustatzea. Kultura arlotik, adibidez, emaztekien lanei ikusgarritasuna ematen saiatzen dira. Eduki feministadun ikuskizunak ere ekarri izan dira Baztanerat. Gizarte Zerbitzuetatik emazteki migratuekin lanketak egin izan dituzte baita zaintzaileendako tailerrak ere. Kirol eskaintzari dagokionez, eskola ordutegiak kontuan hartzen dira bateragarri egiteko kirola eta zaintza ardurak. Emaztekien kirola sustatzeko ekipamenduen ordutegiak ere egokitu izan direla adierazten da. Euskararen arlotik haur eta familiengan jartzen dutela fokua aipatu da, baina, ez dutela berdintasunaren gaia zehazki lantzen.



EKIMEN ESANGURATSUAK

Baztango udalean herritarren parte hartzea aunitz sustatzen dela aitortu da. Hainbat parte hartze prozesu paratu dira martxan hondar urteotan. Emaztekien parte hartzerako deialdi bereziak ere egin izan dira. Gaur egun, udalaren proiektu handietako bat arras feminizatutako sektore bati dago lotua, Zahar Egoitzari, alegia.

Garbiketa enpresaren publikatzea lan feminizatu bat aitortzeko modua izan zela aipatu da. Baina, kontratazioan rol eta estereotipoak ez errepikatzeko, eraikin barneko garbiketa emaztekien esku ez uztea eta karrikaren garbiketa gizonen esku ez uzteaz solastatu da.

Berdintasunaren gaia kontuan hartzen da udaletik, batez ere, alor feminizatuetan, maskulinizatuetan ez horrenbertze. Erraterako, Turismoaren inguruko azterketak ez zuen inolako daturik edo irakurketarik genero ikuspegitik, nahiz eta Nekazal Etxeetako langileen gehiengoa emaztekiak izan. Berdin komertzio ttipietako dendariekin.

Ekimen esanguratsuetan **egiten dena intuizioz eta borondatez egiten dela aitortzen** da, eta beraz, genero ikuspegia sistematikoki txertatzeko prestakuntza eta planifikazio beharraz solastatu da.



EMAKUME ETA GIZONEN PARTAIDETZA

Herritarren partaidetzarako udal organo moduan, herritar batzorde bat baino gehiago egon izan dira udalean. Gaur egun, aldiz, Euskara Batzordeak eta Berdintasun batzordeak funtzionatzen dute soilik.

Berdintasun batzordea 6 emaztekik, gizon batek eta ez bitar batek osatzen dute.

Baztango herrietako 15 batzarretan gizonen parte hartzea handiagoa izan ohi da, baina aldaketa heldu dela ematen du. Gazte jendearen artean, neskatiko gehiago daude mutikoak baino. Alkate juratuen artean 2 dira emakumezkoak eta 13 gizonak.

Euskara batzordea hezkuntzarekin arras lotua dago. Momentu honetan 5 gizonek eta 3 emaztekik hartzen dute parte. 5 gizonetatik 4 eskolako zuzendariak dira (sektore arras feminizatuan). Aipagarria dela erran dute taldean.

Udal barnean ordezkaritza sindikala dago. 6 pertsonen osatzen dute, 3 emazteki eta 3 gizon.

Emaztekien partaidetza sozio-politikoaz ari garela, egoera Baztanen ez dela arras ona aipatu da. Kalearen, espazioen, aisialdiaren, denboraren erabilera arras desberdina da emazteki eta gizonen artean. Aunitz idealizatzen dugu emazteki eta gizonak nolakoak izan behar dugun, eta rol eta estereotipoak haustea kosta egiten da.



BERDINTASUN POLITIKETARAKO BITARTEKOAK

Alor honetan aurrerapauso handiak eman direla aitortzen du taldeak. Maiatzaz geroztik berdintasunerako teknikaria dago udalean eta aldea nabari da. Hondar urteotan arras ezegonkorra izan da lanpostu hau, eta hutsik egon da denbora luzez. Badirudi, ordea, teknikari berriak, Foru Arau berriak, I. Planaren balorazioak eta hurrengo plana egiteak haize berriak ekartzen ahal dituela Baztanerat Berdintasun politiken ikuspegitik.

Hala ere, 2013an zerbitzua sortu zenetik aurrekontua ez da handitu, hasierako kopuru berarekin segitzen du. Bertze teknikari batzuk arrazoitzen dute hala gertatzen dela bertze alor batzuetan ere, eta hori, udalak duen aitzinkontu faltagatik dela.



BERDINTASUN POLITIKETARAKO TREBAKUNTZA

2015az geroztik trebakuntza bakarra jaso dela aipatu da, komunikazio ez sexistaren inguruan. Hori 2016an izan zen. Orokorrean, emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzeko prestakuntza falta sumatzen da langileen artean, norberaren lan jardueran genero ikuspegitik egin ahal izateko. Lehentasunez landu beharreko lan ildoak dela iritzi dute honakoa.

Laburbilduz, eta semaforo baten argiekin lehentasunak identifikatzeko asmoz, aipatutako gaiak taula batean bildu ditugu. Bertan, udal-langileek lan eremu bakoitzari kolore bat paratu diote. Berdea, ongi lantzen ari den gaia izanen da. Laranja, lantzen ari den alorra, baina, indartu behar dena. Eta gorria, lehentasunez landu beharko litzatekeen gaia :



Datu-bilketa eta azterketa



Komunikazio ez-sexista eta barneratzailea



Berdintasunerako klausulak



Ohiko udal jarduerak



Udal ekimen esanguratsuak




Emazteki eta gizonen partaidetza



Berdintasun politikak garatzeko bitartekoak



Berdintasunerako trebakuntza



4.5 ONDORIOAK ETA IKASPENAK

Planaren diseinuaren aldetik: I. Berdintasun Planaren egokitasunaren harira, berreskuragarriak lirateke planaren diseinuan eta aurrelanketan egin ziren esfortzuak. Bertzalde, aitzinera begira hobetzeko 4 proposamen heldu den plangintzaren diseinuan kontuan hartzeko:

1. Ekintzak zehatzago definitzea. “Emazteki gazteen partaidetza sustatzea” zein neurri artio nahi dugu sustatu?
2. Ekintzen ardurak hobeki banatzea. I. Planean, arduradun nagusia Berdintasun Zerbitzua zen, pertsona bakarreko unitatea, gainera hutsik egon zena. Departamentuen artean ardurak hobeki banatzea da aitzinera begirako proposamena.
3. Planaren jarraipenari denbora eta egiturak eskaini. Koordinazio egiturei inportantzia handia eman, hauek gabe ez baitago jakiterik planak aitzinera egiten duen edo ez. Honi loturik, urteko programazioak eta jarraipena egitea inportantea da.
4. Adierazle sinpleagoak bilatu. 182 adierazle aunitz dira plan baten jarraipenerako, eta Baztan udal ttipia izanik, jarraipena sinplifikatzea proposatzen da.

Planaren garapenaren aldetik: udal teknikarien bigarren taldean aipatu zen *“formakuntza ttipia dugu gai hauetan, ekintza bera aitzinerat emateko ezagutza behar da gaiaren inguruan”*. Bertze batzuek, gaiari eskaini beharreko denborarik ez izatea azpimarratu dute, *“gure eguneroko lanera ez gara ailegatzen eta hau ere...”*. Baliabideez solastatzean, aitzinkontu faltaz solastatu da. *“Oro har, aitzinkontua ez da bat ere aldatzen urte batetik bertzerara, ez berdintasunean eta ez bertze arloetan”*. Bulkada falta eta koordinatzeko beharra ere izan ditugu hizpide teknikarien artean. Akitzeko, langileen joan etorriak, ordezkapen eta aldaketek ez dute bat ere lagundu Berdintasun politikei jarraikortasuna ematen. Laburbilduz, heldu den plangintza gehiago eta hobeki garatzeko, batez ere hiru proposamen:

1. Plana garatzeko arduradunak izendatzean lanpostuaren egonkortasuna irizpidea izan dadila. Berdintasun zerbitzuaren ardura plana sustatzea da. Garatzea, aldiz, udal osoarena. Udal barnean egonkorragoak diren pertsonen baitan ardurak paratzea ideia interesgarria da.
2. Planaren garapenerako, jarraipena eta ebaluaziorako egiturak izatea udal barnean. Udal mailan Berdintasuna lantzeko gunerik ez izateak ez du lagundu. Plana ez garatzeak ez zuen ondoriorik inon. Horregatik, II. Planerako, jarraipenerako mahaia, batzorde tekniko-politiko, edo dena delakoa, inportantea da.
3. Genero ikuspegia txertatzeko prestakuntza plana. Plana aitzinerat eramateko, zenbait ekintzek ezagutza espezifiko eskatzen dute.
4. Heldu den plangintza ezagutzera ematea udal barnean nahiz kanpoan. Teknikarien artean eta emazteki kolektiboaren artean egindako saioretan argi ikusi da ez dela Berdintasun Plana ezagutzen. Horrenbertez, plana garatzeko interesa duen inor guti egon da. Aitzinerat begira, interesgarria izanen da komunikazioari inportantzia ematea.


5. BAZTANGO EGUNGO EGOERA

5.1 BAZTANGO EMAZTEKI ETA GIZONEN EGOERA DATUETAN

Baztan ez dago mundutik aparte, eta sexu bereizkeriak munduan dirauen bitartean Baztanen bereizkeria horren isla ikusiko dugu. Emazteki eta gizonen errealitatearen inguruko zenbait datu biltzea interesgarria irudituz zaigu Berdintasun planaren ebaluazioa helburu duen dokumentu honetan. Hurrengo plangintza baten abiapuntuaren puska bat izanen den heinean, egoerak hobera edo okerrera egin duen ikusten laguntzen ahal du. I. Planean jasota zeuden zenbait adierazle konparatuko ditugu segidan:

1. Demografiari lotua:

Baztango udalean 2014an egin zen emazteki eta gizonen berdintasunerako diagnostikoan jasotzen ziren Baztango herrietako biztanleriaren datuak sexuka. Oro har, Baztanek 7.856 biztanle ditu, 3.882 emazteki eta 3.974 gizon. Hauek dira herri bakoitzaren datu xeheak³:




Iturria: Baztango Errolda onarri harturik, egileak apailaturik.

³ Taulan izendatzen diren herrien inguruan argipena: Zozaia (Oronoz) izendatzen da, baina, herria izatez Oronoz da eta Zozaia bertako auzoa. Maya herriaren ofiziala Amaiur da. Taula I. Planean erabilitako euskarria izaki, hala mantendu nahi izan dugu dokumentuan, baina, aipaturiko argipenak emanaz.

Bertan ikusten ahal da Gaindegiak⁴ 2020an argitaratu zuen tendentzia demografikoari erantzuten diola Baztanek, hau da, herri ttipien hustutzea andreen presentzia

BIZTANLERIA HERRIKA ETA SEXUKA BANATUA (2021)




galtzarekin batera. Honek, batetik, emaztekiendako ogibide eskaintza ezari erantzuten dio, eta bertetik, rol eta estereotipoei lotuago egoteko beharrari. Baztango I. Berdintasun Plana egiteko prozesuan egindako elkarrizketek hala berresten zuten joera hau. Horrela jasotzen da: *“Eztabaida taldeetan errepikatu den bertze esaldia izan da “Herrietan hirian baino markatuagoak daude rolak -sexuka banatzen diren rolak-“, talde guzietan aipatu delarik”*. (I.Plana, 41.or).

Iturria: Baztango errolda, 2021.


Elizondo eta Gartzain dira emazteki gehiago dauzkaten herri bakarrak. Baina, dirudienez, datuek diote Elizondon bederen emazteki eta gizonen proportzioa orekatzen ari dela.

Aipatu beharreko bertze gai bat hondar urteotan migrazioaren joerak dira.



Behetian ikusten dira 2014an Estatutik kanpo sortutako Baztandarrak nondik heldu ziren, eta azpian 2021eko datuak.

Migratzailearen aurpegia ertamerikako emaztekiarena da gero eta gehiago, zaintza lanei lotua lan egiten dutenak. Beraz, erraten ahal dugu populazioaren zahartzea eta migrazioaren joera arras lotuak daudela. Era berean, bai



⁴ <https://www.gaindegia.eus/eu/andreak-eta-lurralde-antolamendua> 2020-02-04

zahartzaroaren kudeaketa eta migratzaileen bizi baldintzak emazteki eta gizonen berdintasunari estuki lotuak daudela ikusten da.


Iturria: Baztango errolda, 2021.

2. Sexuaren araberako segregazioari lotua:


Sexuen araberako rol eta estereotipoek emazteki eta gizonen arteko bereizkeria egoerak iraunarazten dituzte, sexuaren araberako lan banaketa, eta lan horien errekonozimendu sozial eta ekonomiko ezberdina baitakar gibeletik.

Baztango Lanbide Heziketarako eskolan, neskatiko* eta mutikoen* ikasketen aukerak rol eta estereotipoei erantzunez egiten zuten 2014an eta hala izaten segitzen du 2020an ere.

- **BAZTANGO LANBIDE HEZIKETAKO MATRIKULAZIOAK SEXUKA (2014)**



Iturria: Berdintasun Zerbitzuak egina.




Iturria: Berdintasun Zerbitzuak egina.

Argi ikusten da 2014an bildutako datu hauetan ikasketa aukerak **genero estereotipo**ei lotuak daudela, eta ikasketa zentroak, praktikan, sexuen arabera segregatuak daudela,

ofizialki mistoak diren arren. Hau hala ematen da, bai Baztanen bai eta Nafarroa osoan ere.

● **BAZTANGO LANBIDE HEZIKETAKO MATRIKULAZIOAK SEXUKA (2021)**



Iturria: *Berdintasun Zerbitzuak egina, 2021.*

2021eko datuekin konparatuz, tendentziak berdina izaten segitzen duela ikusten da.

Haur eta gazteei errurik bota gabe, helduen lan banaketa sexuaren arabera egiten dela ikusten dugu, bai udal langileen lanbideak eta sexuaren arteko lotura ikusiz gero, bai eta enplegu leku handiei erreparatzean ere: zahar egoitzan, osasun mentalaren ospitalean, ikastetxeetan, enplegatu gehienak emaztekiak dira; eta mendizain postuetan, Udaltzainetan, obretako gremioetan, aldiz, gizonak.


Sexuaren arabera segregatua bizi dugu lanbidea, espazio publikoa eta arretaz begiratzen badugu, baita norberaren etxea ere.

3. Enplegu eta diru-sarrerei lotua:

Beheitiko taulan lan merkatuaren datu inportanteenak bildu nahi izan ditugu. Kasu honetan Nafarroako datuak dira, ez Baztangoak zehazki.

Bertan ikusten da emaztekien langabezia ttipiagoa dela gizonena baino. Datuak ongi aztertuz gero, ikusi ahal da nola emaztekien aktibitate tasa eta enplegu tasa ttipiagoa den gizonena baino. Datu hauetatik interpretatzen ahal dena da emaztekiak gizonak baino 7 puntu gutiago sartzen direla lan merkatura. Aktibitate tasa adinka aztertuko bagenu, ohartuko ginatke 18-25 adin tartean lan merkaturatzea, hau da, aktibitate tasa emazteki eta gizonen artean ez dela horren desberdina. Adinean aitzinerat joan ahala emaztekiak lan merkatutik ateratzen dira, eta arrazoi nagusiak lan duina lortzeko espektatiba falta izaten da, bai eta zaintza ardurak izatea ere.

Bertzetik, ikusten ahal dugu proportzioan emazteki gehiago daudela aktiboan gaur egun 2014an baino. Lan eske edo lanean dauden emaztekiak gaur egun % 55,71 dira, eta 2014an soilik emaztekien % 53,85ak bilatzen zuen edo bazuen enplegua. Gizonen kasuan aldrebes da, ordea. 2014an gizonen % 64,94a lanean ari zen edo lana bilatzen zuen. Gaur egun aldiz, % 62,55ekoa da portzentaia. Hala ere, aldea badago oraindik emazteki eta gizonen artean, 2014an 10 puntu baino gehiagoko aldea zegoen lan merkatuan emazteki eta gizonen arteko presentziari zegokionez. Gaur egun aldea 7 puntukoa da kasik.



Iturria: INE, 2021.

Soldatari dagokionez, 2021eko martxoan Gaindegia honako titularra argitaratu zuen: "Gizon eta emakumeen arteko aldea lan sarian: 2,5 eurokoa da lan-orduko" (Gaindegia⁵, 2021-03-03). Euskal Herriko datuez ari zen.

Lan-merkaturatzean aurrerapausoak ematen ari direla adierazten dute datuek, baina, lan-merkaturatze hori zein baldintzetan ematen den aztertzean, emaztekien prekarizazio-mailaz jabetzen gara (soldata arrakala, sexuagatiko jazarpena eta jazarpen sexuala, kontziliazio-neurriei heltzen dieten pertsonen artean, gehienak emaztekiak dira, jardueran murriztea zaintza lanetarako, emakumeek egiten dute gehien bat...). Horrek guziak pobrezia feminizazioa dakar, hau da, pobreen artean gero eta gehiago dira emaztekiak.

Baztanen banaz bertzeko pentsioa 1080,24 €-koa da hilabetean. Ez dugu sexuaren arabera bereizitako daturik.

Nafarroako datuak kontuan hartuta, aldiz, hona herritarren pentsioak sexuaren arabera: gizonen banaz bertzeko pentsioa 1.468,92 €-koa izan zen 2021eko azaroan; emaztekien kasuan, 923,08 €-koa. Emaztekien banaz bertzeko pentsioa gizonena baino handiagoa da soilik alarguntza-pentsioaren kasuan (banaz bertze, emaztekiek 838,52 € jaso zituzten 2021eko azaroan, eta gizonek, berriz, 588,36 €). Gainerako pentsio-motetan, gizonek banaz bertze zenbateko handiagoa jasotzen dute⁶.

⁵ <https://www.gaindegia.eus/eu/gizon-eta-emakumeen-arteko-aldea-lansarian>

⁶ Ministerio de Empleo y Seguridad Social. "Navarra - Las pensiones en la comunidad, en datos y gráficos", datos actualizados el 25 de febrero de 2022.

2005etik pentsio horien zenbatekoa aztertuta, ikusten da aldeak nahiko egonkorrak izan direla, generoari lotutako soldata-arrakalean gertatzen den gisan⁷.

Hainbat faktorek eragin dute desberdintasun horiek sortzea⁸. Alde batetik, emaztekien soldatak baxuagoak dira, orokorrean: soldata ttipiagoko tartetan emaztekiak gehiengoa dira eta, aldrebes, kasik ez daude tarte handietan⁹. Bertzetik, behin-behinekotasunaren eta lanaldi partzialaren intzidentzia handiaren ondorioz, emazteki langileen kotizazioak okerragoak dira, horregatik prestazio baxuagoak dituzte gerora. Berriz ere, lanaren sexu-banaketak desberdintasuna eragiten du orainaldian ez ezik baita etorkizunean ere (pentsio-sistemetara sartzetakoan), sexu banaketa horrek erran nahi baitu emazteki gutiago dagoela ordainsari handieneko sektoreetan, errekonozimendu handienekoetan eta, beraz, soldata handieneko lanpostuetan. Baina, horrez gain, badira bertze elementu batzuk ere emaztekien erretiroaren egoera prekarioagoa izatera bulkatzen dutenak, hala nola, banaz bertze gizonak baino gazteagoak diren adinetan lan-merkatutik erretiratzea.

4. Emaztekien kontrako indarkeriari lotua:

Baztanen emaztekien kontrako indarkeriaren salaketek nabarmen egin dute goiti hondar urteotan. 2003tik 2012ra 33 salaketa paratu ziren Nafarroako Gobernuko datuen arabera. 9 urtetan zehar 33 salaketa, beraz.

2021eko azaroaren 25ean Ttipi-Ttapan argitaratutako berrian jasotzen da Baztanen 2011z geroztik 61 salaketa erregistratu dituela INAI/NABIk genero indarkeria dela eta.

Genero indarkeriaren salaketak eskualdean												
UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021*	GUZTIRA
BAZTAN	10	1	1	5	4	5	8	6	8	10	3*	61
LEITZA	2	2	1	2	5	1	2	2	4	4	0*	25
LESAKA	1	5	0	0	2	3	0	1	2	6	1*	21
BERA	0	1	2	1	1	2	1	0	2	3	4*	17
DONEZTEBE	0	3	0	0	1	0	1	0	3	7	2*	17
BERTIZARANA	0	1	2	1	0	1	0	1	0	1	2*	9
URDAZUBI	2	0	0	0	1	1	1	1	0	0	1*	7
GOIZUETA	0	0	0	0	0	1	1	1	0	0	0*	3
ETXALAR	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	0*	3
ARANO	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0*	2
GUZTIRA	15	13	7	9	14	15	14	12	20	33	13	166

*OHARRA: 2021EKO DATUAK IRAILERA BITARTEKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALA.

Iturria: Ttipi-Ttapan aldizkaria, 2021-11-25.

⁷ Nafarroako Gobernu, Nafarroako Berdintasunerako Institutua. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO EMAKUME ETA GIZONEN EGOERA: BERDINTASUN LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN AURRETIKO DIAGNOSTIKOA (2017).

⁸ Ídem


⁹ CCOO, Ikerketa eta komunikazio bulegoa (2020). “Pentsioen egoeren analisi grafikoa”.

Gorakada hau, ordea, ez da datu txarra. Izan ere, arlo honetan egindako sentsibilizazio eta kontzientziazio lanek indarkeria mota hau ikustarazteko eta aitortzeko balio izan du. Hala, normala da salaketa gehiago egotea, indarkeria egon denaren aitortza eta irtenbidea egoten ahal den esperantza erakusten baitu salatzeo hautua egiteak.

Gogorarazi behar dugu, salaketa kasuak, egiazki ematen diren kasuak eta udal zerbitzuetan artatzen diren kasuen kopurua ez dela berdina. Egiazki ematen direnak kalkulatzeko arraz zaila da, salaketa kopurua epaitegi eta polizia bidez jasotzen da, baina artatzen diren kopuruak handiagoak dira, salaketa gabe ere, indarkeria jasaten duten emaztekiek eskubidea baitute zerbitzu publikoak jasotzeko.

5. Botere politikoari lotuta:

Berdintasun-plana diseinatzen ari zen urtean, hau da 2014an, 7 emaztekik eta 6 gizonek osatzen zuten osoko bilkura. Alkatea emaztekoa zen. 2020. urtean, plana bukatua behar zelarik, 4 emaztekik eta 9 gizonek osatzen zuten udalbatza. Alkateak, 2015az geroztik gizonak izan dira.




Iturria: Berdintasun Zerbitzua

Alkate juratuen kasuan, emaztekiek parte hartzeak goiti beheitiak izan ditu, eta gaur egun 15 alkate juratuetatik bi dira bakarrik emaztekiak. 2013tik hona ordezkari politikoa alkate juratuei dagokionez honakoa izan da:

BAZTANGO EMAZTEKI* ETA GIZONEN* BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

Urtea	Emaztekoa	Gizona	Guztira
2013-2014	0	15	15
2015-2016	1	14	15
2017-2018	3	12	15
2019-2020	5	10	15
2021-2022	2	13	15

Emaztekiek presentzia ez da egonkorra izan, hala ere, arras kopuru ttipian daude ordezkaturik emaztekiak alkate juratu gisa. Kopuru handiena 2019-2020 urteetan izan zen, 15etik 5 izan ziren emakumezkoak, % 33,3.





Iturria: Berdintasun Zerbitzua.


Grafikoetan aise ikusten da emaztekiek parte hartze politikoak eremu instituzionalean bederen ez duela aunitzirik aitzinerat egin. Berdintasun politikek aitzinerat egiteko estrategia inportantea izan ohi da emaztekiak botere-guneetara ailegatzeko bideak paratzea. Hala ezartzen du Nazio Batuen Erakundeak, bai 1995eko Beinjingeko adierazpenean, bai eta GJH2030 estrategian ere.


5.2 BAZTANGO EMAZTEKI ETA GIZONEN EGOERA INFORMAZIO KUALITATIBOA


Baztango elkarte eta erakundeetan lan egiten duten emaztekiekin egindako eztabaida taldean bildutako informazioarekin bailaran emazteki eta gizonen egoera zein den bildu dugu atal honetan. 12 eremu aztertu dira.


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Hezkuntza</p> 	<p>Hezkuntza formalean SKOLAEEn sartuta daude ikastetxe publiko guztiak. Hala ere, formakuntza falta da irakasleen artean. Pertsona solteen edo irakasle zehatzen esku egoten da berdintasuna lantzea. Egun seinalatuetan bakarrik lantzen da berdintasuna. Egunerokoan ez da emaztekien ekarpenik ikusarazten.</p> <p>Ikasleek bere egin dute borroka, eta adibidez, Batxilergoan antolatua dago ikasleria. Lanbide Heziketa eta institutua ez daude SKOLAEEn sarturik.</p> <p>Hezkuntza ez formalean, praktikoki ez da Hezkidetzarik lantzen. Euskarazko aisialdian ere aukera arras mugatuak daude, eta hauek, gainera hezkidetzarekin ez dute loturarik (espazio hetsi edo ludotekaren beharra?). Egiten den pitina modu autonomoan, hezitzaileen baten borondatez egiten da.</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Euskara</p> 	<p>Desberdintasunak erabileran nabarmenak dira. Bailarako “euskara figurak” gizonak dira gehien bat.</p> <p>Aitzineko belaunaldietan, emaztekiek “bertzeengana” egokitzeko joera gehiago izaki, gazteleraz jotzen ahal dute errazago. Gizonek euskara egiteko ohitura gehiago mantentzen dutela sumatzen ahal da. Gazteetan, aldiz, joera alderantzizkoa da.</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Kultura eta aisia Festak</p> 	<p>Herri ekimenetik antolatzen diren kontuetan, emaztekiak dira gehiengo antolaketan, bailarako herrien arabera egoera aldatzen ahal den arren. Orokorrean, gizonek lan ikusgarriagoak, ardurak edo “indarrari” lotutako lanak egiten dituzte: montaketak, txoznak...</p> <p>Genero rolak lan banaketetan argi islatzen dira. Egiten den programazioaren inguruan hausnarketa egiten ari dira herri batzuetan, batez ere bestei begira.</p> <p>Udaletik programatzen diren kontuetan gero eta gehiago hartzen da kontuan berdintasuna, bai eta emaztekien presentzia orekatua ere. Eduki feministen eskaintza egiten du udalak.</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Kirola</p> 	<p>Orokorrean, kirolean estereotipatutako aukeraketa egiten da. Aire zabalean, federatu gabeko kirolean, gizonak gailentzen dira. Espazio publikoan kirola egiten emaztekiak ez dira hainbertze ikusten. Aldiz, igerilekuan eta Arizkunenean, Yoga bezalako kirolean emaztekiak nagusitzen dira. Gimnasioan alderantzizko joera ikusten da, gizonek erabiltzen dute gehien.</p> <p>Federatutako kirolean, kirol instalazioak, aire librean, gizonek erabiltzen dituzte kasik osotasunean. Kiroldegia emazteki eta gizonek erabili arren, emaztekiek desabantaila nabarmenak dituzte: ordutegi txarrak, trabak, aitortza ezberdina...</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Espazio publikoa (garraioa, komertzioak, kalea...)</p> 	<p>Ordutegiaren eta jarduera motaren arabera erabilera arras desberdina da gizonen eta emaztekien aldetik. Errepidean, tabernetan, bestetan, kirolean, etab. protagonismoa gizonek dute. Aldiz, goizetako merkatuetan, haur parkeetan, eskola inguruetan, landetako bidean, etab. emaztekiak dira nagusi. Genero rol eta estereotipoek markatzen dute guziz espazio publikoaren erabilera.</p> <p>Komertzioetan, zerbitzuetan eta zaintza lanetan ikusten dira gehien bat emaztekiak (harategietan izan ezik).</p> <p>Garraio publikoa nabarmen erabiltzen dute emaztekiek gehiago, gehienbat emazteki migratuek. Mendiko motorra, kasik osoki gizonek.</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Enplegua eta autonomia ekonomikoa</p> 	<p>Lanbideek oraindik genero marka dute. Gizonek betetzen dituzte ogibide hoberenak, hobeki ordainduak daudenak. Emaztekien diru-sarrera nagusiak zaintza arloei eta zerbitzu publikoei lotuak daude (osasungintza-hezkuntza-garbiketazaintza = zaintza lanak).</p> <p>Soldata ttipiak eramaten dituzte etxera oraindik. Pentsio arras baxuak dituzte emaztekiek, aunitzetan, alarguntzari edo gizonen pentsioei lotutakoak. Nekazaritzako andreen lana ikusezina izan ohi da.</p> <p>Lana, bizitza eta familia uztartzeko aukera guti daude.</p>


EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Zaintzaren antolaketa soziala</p> 	<p>Eskaintza publikoari lotua: Haur eskola, zahar-etxea, etxez-etxekeo zerbitzua, eskola/ikastola badaude.</p> <p>Etxeko zaintza beharren gehiengoa, aldiz, familietako emaztekiek asetzen dute</p> <p>Zaintzaile profesionalen egoera arras kritikoa da, erabat prekarioa, gehienak kontratu gabe, ikusezinak dira gainera.</p> <p>Zaintzaileak zaintzeko aukerak aztertu behar dira. Bailaran ludoteka baten beharra sumatzen da.</p>

EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Administrazio publikoa</p> 	<p>2018tik berdintasun plana iraungita eta aitzinetik geldi egon da, bete gabe. Gutxi eta sinbolikoak izan dira ekintzak eta batzuetan, kanpo eragileek bulkatuak. Hondar aldian aurrerapausoak ematen ari dira. Berdintasun teknikaria eta zinegotzia daude orain. Hala ere, bertan egiten denaren berri izatea falta da.</p> <p>Falta da: Udaleko funtzionamenduan berdintasuna txertatzea, bulkatzen diren politiketan feminismoa zeharlerro gisa lantzea, emaztekien ahalduntzea, formakuntza eta gizonekin lanketak egitea, bertzeak bertze.</p>

EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Emaztekien Ahalduntzea</p> 	<p>Emazteki aunitzek oraindik ez dute “bereizkeriaren” pertzepziorik. Kontzientziazioa falta da. Ez dago emazteki sare zabalik.</p> <p>Neskatiko* gazteen taldeak eta talde feministak badaude. Emazteki gazteen artean badago sarea, nahiz eta gehienbat egun zehatzen inguruan elkartu. Harremantzeko ereduak aldatu ditu emazteki gazteen taldeak, eta eragina dute herriko bertze mugimendu antolatu batzuetan; gaztetxean, mutil-dantzetan, bestetan, erraterako.</p> <p>Udalarekin elkarlanerako Berdintasun Batzorde irekia badago.</p>

EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p>Emaztekien aurkako indarkeria</p> 	<p>2018az geroztik sentsibilizazioa mugimendu feministatik eta instituzioetatik egun puntaletan egiten da. Pankartak eta kartelak badira herrietan.</p> <p>Kasuen aitzinean, egoerak nola kudeatu ez dago garbi. Gizarte zerbitzuetatik, osasun etxetik eta talde feministatik, bai eta berdintasun zerbitzutik, badago ahalduntzerako eta erreparaziorako eskaintza.</p> <p>Kasuen jarraipena udaletik egin behar da eta zerbitzuak eskaini. Ez da ezagutzen zer eskaintzen ahal duen udalak. Egoera honi aurre egiteko, egun, udalerrian indarkeria matxisten diagnosis egiten ari da Udala. Arreta eta koordinazio protokoloa lantzea da xedea.</p> <p>Arras herri ttipia da, laguntza eskatzeko muga eta tabuak daude.</p>

EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p data-bbox="240 353 432 456">Migrazioa eta Etxeetako langileak</p> 	<p data-bbox="507 309 1442 405">Gehien aipatzen den ideia, tratu egokiaren beharra da. Lan jazarpena, prekarietatea-esklabutza, jazarpen sexistak, sexualak gehien bat, ohikoak dira.</p> <p data-bbox="507 409 1442 506">Etxe propiorik ez izateak babesgabetasun handia ematen du, nagusiaren menpekoago egiten ditu. Larrialdirako egoitza batek lagunduko luke.</p> <p data-bbox="507 510 1442 607">Bakardade handia bizi dute. Senideen hutsuneagatik, lagunak egiteko zailtasunagatik, kultura eta herri desberdin batean bizitzeagatik, denbora faltagatik (astean arratsalde bat libre izatea).</p> <p data-bbox="507 611 1442 707">Zerbitzu aunitz ez dira eskuragarriak haientzat: Baserrietan bizitzeagatik, garraio publikorik ez dagoelako, edo paperik ez izateagatik.</p> <p data-bbox="507 712 1442 808">Haien artean ezagutzeko, herritarrekin harremantzeko, eta herriari ekarpena ere egin ahal izateko partaidetzarako eta ahalduntzeko espazioak behar dituzte.</p>

EREMUA	Zein da egoera berdintasunari dagokionez?
<p data-bbox="225 1008 448 1066">Lurrari lotutako emaztekiak</p> 	<p data-bbox="507 999 1442 1128">Landa eremuko emaztekiek egin ohi duten jardun-hirukoitzaren aitortza behar da. Nekazaritza lanak orokorrean duindu eta baloratu behar dira, eta emazteki nekazariak egiten duten lana ikusgarri egin (ikusezina baita).</p> <p data-bbox="507 1133 1442 1229">Hirigunetik urrun bizita, aunitzetan zerbitzu publikoetara ailegatzeko zailtasunak daude. Zaintza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, aisialdia, garraioa,... ez dira behar bezala ailegatzen.</p> <p data-bbox="507 1234 1442 1364">Herri ttipiak eta nekazaritza, orokorrean, errelebo beharrean dago. Erreleboa ez dago bermatua; gazteak behar dira baita emaztekiak ere. Horretarako rol eta estereotipo aunitz hautsi behar dira, eta eremua duindu.</p> <p data-bbox="507 1368 1442 1435">Landa eremuko eta lurrari lotuak lanean ari diren emaztekiak ahalduntzeko beharra dago.</p>

6. ONDORIOAK

Txosten honek biltzen dituen orrialdeetan Baztango emazteki eta gizonen I. Berdintasun Planaren ebaluazioa jaso dugu.

Planaren betetze maila eta egokitasuna aztertu ditugu informazio kualitatibo eta kuantitatiboen bidez. Bertzetik, egun Baztanen emazteki eta gizonen arteko bereizkeriak identifikatu ditugu, hauek ere datuen bidezko analisiaren eta talde elkarrizketen bidezko bizipenak jasoaz.

Ondorioa garbia da. Baztanen badago oraindik emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzen segitzeko aukera eta beharra.

Behar horri gehitu behar zaio Nafarroan eta Estatuan hondar urteetan eman den marko arautzailearen garapena. Baztanek 2022ko akaberarako, Nafarroako Berdintasun Legearen arabera Berdintasun Plan berri bat izateko betebeharra izanen du, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa onartzen den momentutik.

Txosten hau egiteko prozesuan zehar, emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzeko nahia adierazi duten herritarrak bildu dira, eta udal teknikariek gaia lantzeko denbora hartu dute.

Hartutako denborari esker, iragana baloratu eta etorkizunean pentsatzen paratu gara eta aitzinerat begirako erronkak identifikatzen hasiak dira ebaluazioan parte hartu duten eragileak. Udal barnean, nahiz Baztango herrietan, I. Berdintasun Planaren ebaluazioak "berdintasuna" agenda publikoan paratu du.

Gauzak horrela, iduri du aukera badagoela Baztango II. Berdintasun Planari heltzeko.

7. ERABILITAKO MATERIALA

- *Baztango I. Berdintasun Plana.*
- *Plan estratégico de Igualdad Navarra (Borrador).*
- *INE*
- *Gaindegia*
- *Lanbide Eskolak helarazitako datuak*
- *Baztango errolda*
- *Ttipi-ttapa, artikulua*
- *Udal teknikariak 1.akta*
- *Udal teknikariak 2.akta*
- *Emazteki migratuak akta*
- *Sektoreetako emaztekiak akta*
- *Lurrarekin harremana duten emaztekiak akta*
- *Herri batzarra akta*